

B

BARREN



**“Egunen batean
gerra-argazkilaria
izatea gustatuko
litzaidake”**

Jairo Berbel, argazkilaria

Arauri

HURRENGO
SESIOA

DOAN

Foto
Depilazioa

Azaroaren 15etik
abenduaren 15era

Tel.: 943 741 789 - San Bartolome, 6 - ELGOIBAR

Depilazol




TEXTIL HOGAR - LAGUNAK

IZAPIDERIK ETA TRAMITERIK GABE

- %15etik %25erako deskontua egiten dugu koltxoietan, somierretan, ohe-elektikoetan, arkoietan,...
- Koltxoi berria erosi eta horrez gain izarak edo koltxoi-estalkia erosiz gero, %15eko deskontua.

San Roke kalea, 20 - Tel.: 943 744 457 - ELGOIBAR - www.textillagunak.com



Edarra izan da, Gotzon!

Ederra izan da, bai. Ez dakizu zelako estimazioa izan duen zure omenez prestatu dugun programak. Pentsatzen genuen jendeak erantzungo zuela, baina ez genuen uste horrenbesteko izango zenik.



Herri-omenaldiaren egunean, Foruen Plazan, euripean, jende asko eta asko bildu zen. Ikusi al duzu zure jaiotetxean jarri genuen oroitarria? Musika Eskola, berriz, txiki geratu zen. Ez dakizu zelako polita izan zen omenaldia. Han zeuden zure bueltakoak: anai-arrebak eta senitartekoak, Odriozolatxokoak, D e u s t u k o lankideak, eta hainbeste maite z e n i t u e n elgoibartarrak. Denak bat eginda; zure omenez.

Biharamunean, zure lan guztiak bildu eta erakusketa bat antolatu genuen. Zure bizitza eta lana hobeto ikusteko leihoa zabaldu genuen Kultur Etxean, eta, denera, 300 lagunek gozatu dute hango ikusmirarekin. BARREn, berriz, zure txikitako lagunek eta Roman anaiak kontatu dizkigute zure gaineko kontuak.

Eta, amaitzeko, hitzaldi-zikloa izan dugu, Gotzon; hiru hitzaldi eta bertso-ikuskizun bat. Zuk hainbeste maite zenuen euskararen gainean jardun dugu, batez ere: euskararen jatorria, euskaltasuna... Badakigu ez diguzula sinistuko, baina hitzaldi bakoitzean 65 lagunetik gora izan dira!

Gotzon akorduan hartuta antolatu dugu omenaldi-programa, eta garbi geratu da elgoibartarrok ez zaitugula ahaztu. Bistan da maite zaitugula. Eta zu ere esker oneko gizona zinenez, Elgoibarko Izararen eta Udaleko Euskara Batzordearen izenean eskerrak eman nahi dizkiegu omenaldian parte hartu duten guztiei; bai prestakuntza lanetan jardun dutenei, eta baita antolatutako ekintzetara azaldu direnei ere.

Aurtengoak amaitu dira, Gotzon, baina datorren urteko urrian ere izango da zerbait berezirik Elgoibarren, gainean dugun krisi honek lagatzen badigu behintzat. Zu ere berezi zinelako. Bien bitartean, Elgoibar euskaldunagoa izateko lanean segituko dugu, hori baita zuri egin diezazukegun erregalurik ederrena.

Jon Peli Uriguen eta Ander Soraluze
Gotzon Garate akorduan egitasmoaren antolatzaileak

“Gotzon akorduan hartuta antolatu dugu omenaldi-programa, eta garbi geratu da elgoibartarrok ez zaitugula ahaztu”


KARAKATEKO IGOERAKO IRUDIAK jarriko ditugu astelehenean!



Egin klik eta ikusiko duzu

www.elgoiBARREN.net





“Gure etxea
museo txiki bat
bezalakoa da”

GEMMA MONREAL eta JAIRO BERBEL

AMA-SEME ARTISTAK

Gemma Monreal eta Jairo Berbel ama-semeak eta artistak dira: ama pintzelarekin, eta semea argazki kamerarekin. Gemmak urte asko daramatza pinturaren munduan, eta Jairo hasi berria da argazkigintzan. Azaroaren 20an biek erakusketa bana inauguratuko dute Kultur Etxean. Gemmak bere amari eskainitako olio pinturen erakusketa estreinatuko du, eta Jairok Afrikan eginiko argazkiak jarriko ditu ikusgai. 20 urteko gaztearen ilusioak eta ama batek semearekiko duen miresmenak bat egin dute orain.

Jairo Berbel

Jairo, Afrikako argazkiak erakutsiko dituzu erakusketan.

Batez ere, umeen aurpegiak atera ditut. Euren espresioak, irribarreak eta begiradak jaso ditut kamerarekin. Neskatila bat aitzur handi batekin lanera zihoan unean harrapatu nuen, eta argazki hori izugarri gustatu zait. Hamabi argazkiz osatutako erakusketa izango da. Umeak lanean edo jolasean dauden argazkiak dira gehienak. Batez ere, hemengo eta hango desberdintasuna erakutsi nahi dut. Ume baten aurpegia soilik ikusita, antzeman daitezke desberdintasunak. Aurpegia lehorra daukate, zimurtuta eta askotan hautsez beteta.

Zer dela eta joan zinen Afrikara?

Aspalditik neukan gogoia, eta Tomas Madinabeitia apaizarekin joan nintzen Kongora. Nire asmoa ez zen argazkiak ateratzea; laguntzera joan nintzen, kooperante moduan. Baina badaezpada aitari argazki kamera ona eskatu nion, eta erretratuak ateratzeko ere aprobeixatu nuen bidaia. Izugarri gustatu zait Kongo. Ideia bat baneukan nire buruan, eta espero nuen horrelako zoezer aurkitzea, baina bertara iritsi arte ezin da benetan imaginatu hura nolakoa den. Dokumental asko ikusi arren, bertatik-bertara ikustea oso diferentea da. Pobrezia handia dago. Nik, esaterako, ez dakit aitzurra erabiltzen, eta neska txiki batek erakutsi zidan. Eurak ohituta daude. Atentziona eman zidan beste kontu bat ume albino batekin topo egitea izan zen. Ume beltz baten ezaugarri fisikoak ditu, baina zuria da eta ilea hori-horia dauka.

Nola ikusten da mundua kameraren objektibotik?

Begiekin gauza asko ikusten dira, eta kamerarekin detaile txiki guztiak harrapatu daitezke. Erretratu asko atera nituen han, baina ezin nituen ikusi. Etxera etorri eta argazkiak ordenagailuan ikusten hasi nintzenean gauza bitxi asko deskubritu nituen: ume baten begietan ni azaltzen naiz. Horrelako txikikeriek ilusio handia egiten dute.

Aitaren kamerarekin joan zinela diozu. Berarengandik datorkizu argazkilaritzarako zaletasuna?

Bai, aita ere argazkilaria da. Ezkontza edo jaunartzeetako erreportajeak egiten ditu, eta erakusketak ere egin izan ditu. Aspalditik hartu izan diot argazki kamera txikia. Kamera hartu eta mendira joaten nintzen erretratuak ateratzera. Oraingoan reflexa eskatu diot.

Zein motatako argazkiak ateratzea gustatzen zaizu gehien?

Afrikar bertakoen aurpegiak atera ditut, batez ere. Nire ustez, aurpegiko espresioak islatzen zuen gainontzeko guztia. Paisaia batzuk ere atera ditut, baina aurpegiak gehiago bete naute. Paisaia ez zaizkit gehiegi gustatzen, baina egia da kaleko edozein argazki izan daitekeela polita. Niri, baina, argazkiak egin eta jendeari erakustea gustatzen zait, eta kalea edonork ikusi dezake. Begirada bat edo irribarre bat ikustea zailagoa da, eta horiek ateratzea gustatzen zait.

Amarekin margolaria eta aita-emeak argazkilariak. Nolakoa da zuen etxea?

Amaren koadroak eta aitaren erretratuak daude toki guztietan. Niri eskultura ere gustatzen zait, eta nik eginiko lan batzuk ere baditugu. Museo txiki bat bezalakoa da gure etxea.

Etorrizunari begira, zein dira zure asmoak?

Gaur egun Kazetaritza ikasten dihardut Leioako Unibertsitatean. Argazkilaritza ikasgaia ere badaukagu, eta gauza politak egiteko aukera ematen dit. Egunen batean gerrako kazetari-argazkilaria izatea edo munduko lekuri pobreenetan argazkiak ateratzen ibiltzea gustatuko litzaidake.

“Argazkiak egin eta ondoren jendeari erakustea gustatzen zait”

JAIRO BERBEL



Tomas Madinabeitia eta Kongoko bizilagunekin ateratako argazkia. Goian, erakusketako irudi bat.

Gemma Monreal

Zuk, Gemma, amaren omenez egingo duzu erakusketa.

Bai. Ama gaixotu egin zen lehenik, eta ondoren hil egin zen. Ez dut denbora askorik eduki, eta bi urte inguru daramatzat erakusketarik egin gabe. Beraz, ia bilduma guztia prest neukan, baina bost koadro berri daude. Horietako bat oso berezia da, gainera: erakusketa-aren inaugurazioan estalita egongo da, eta bertan bistaratuko dugu. Ama hil zenean hasi nintzen margotzen, eta nire sentimendu guztiak ageri dira bertan. Zeru hatzamarrekin margotu nuen. Zeru iluna da, eta ekaizta datorrela dirudi. Beste plano batean zelai bat ikusten da,

“Margolarien sentimenduak koadroetan islatzen dira”

GEMMA MONREAL



eta baidurdi koadroa lasaituz doala. Ni neu ere, koadroa margotu ahala lasaitu egiten nintzen, eta igartzen da. Beste koadro berezi bat ere egongo da erakusketan, nire lagun Aurelio Arenas hil zenean margotu nuena. Tartean beste hiru margotu nituen, nire ama ez zela sendatuko esan zidatenean. Koadro horietan ere nire egoera oso ondo islatzen da. Kolore grisak dituzte, eta,aldi berean, argi bila ari naizela igartzen da, nire barneko borrokaren seinale. Ilun nago barrutik, baina nolabait askatu beharra daukat eta argitasuna bilatzen dut. Margolarien egoera pertsonalak koadroetan islatzen dira, normalean. Betiko koloreak dituzu nahasketak egiteko, baina ez dira tonalitate berberak lortzen. Sinestezina da.

Zenbat denbora behar izaten duzu koadro bat margotzeko?

Inspirazioaren eta gaiaren arabera asko aldatzen da koadroak margotzeko behar dudana denbora. Burugogorra naiz, eta ideiak oso argi baldin badauzkat, hori lortu arte ez naiz geratzen. Tamainak ere badauka zerikusia. Koadro txiki bat margotzeko hamabi egun inguru behar izaten ditut, baina nire amaren omenez margotu dudana koadroa hiru hilabetetan egin nuen. Hori ere ez da ohikoena. Normalean hilabete inguru egoten naiz koadro bakoitzarekin.

Nola lortzen duzu koadroak margotzeko inspirazioa?

Egia esan behar badut, berak nahi duenean etortzen da inspirazioa. Eguraldi txarrak, behe-lainoak, euriak eta hotzak ekartzen didate inspirazioa. Zeru urdin eta eguzkitsu batek ez dit ezer esaten. Udan sarri egoten naiz neguko paisajeak margotzen, zuzenean ez daukadan sentsazioa lortzeko. Lagunek barre egiten didate eurak hondartzara joaten direnean ni elurtutako paisaiak margotzen geratzen naizelako. Gustatzen zaidana margotzen dut, eta une horretan ez dut pentsatzen besteei gustatuko zaien ala ez.

Erakusketa semearekin batera egiteak zer ekarri dizu?

Ez nuen uste inoiz horrelakorik gertatuko zenik, eta ilusioz beterik nago. Banekien semeak argizkigintzarako zaletasun handia zeukala, eta egunen batean bere lana erakutsiko zuela espero nuen. Biok batera egitearena, baina, oso berezia da. Ikusi ditut erakusketan jarriko dituen erretratuak, eta, ama guztiak bezala, bere obrarekin maiteminduta nago. Orain adituen eta ikusleen iritzia entzun behar dugu.

Jairok gurasoen babesa dauka gustuko duena egiteko. Zure kasuan, zer esan zizuten etxean margolari izan nahi zenuela jakin zutenean?

Arte Ederrak ikastea nahi nuen, baina margolari guztiak gosez hiltzen zirela esan zidaten gurasoek, eta Idazkaritza ikasi behar izan nuen. Hala ere, beti gustatu izan zait margotzea, eta konstantea izan naiz horretan. Hori oso garrantzitsua da.

Zein aholku emango zenioke semeari?

Benetan argazkigintza gustatzen bazaio, bide horretatik jarraitzeko eta uneoro erronka berriak bilatzeko esango nioke. Eta, batez ere, sekula amore ez emateko. Ez da erraza izango, baina zeozer maite duzunean ez da albo batera laga behar. Konstantzia garrantzitsua da. Etxean hirurok laguntzen diogu elkarri, eta beti egoten gara gauzak nola hobetu daitezkeen pentsatzen. Semea ausarta da, eta gustatuko litzaidake Jairo argazkilari aritzea gerra batean.



Tren geltoki aldameneko aparkalekuan zulo handia dago: “Estazio ondoko aparkalekua txarto dago. Zulo handi bat dago lurrean, eta kontu handiz ibili arren, autoaren azpiko aldearekin lurra jotzen da. Aspaldian dago zulo hori hor, eta dagokionari konpontzeko eskatuko nioke. Aparkalekua estua da, eta maniobrak egitea zaila bada, zulo horrek gehiago zailtzen du egoera”.



San Roke auzoan katuei janaria botatzen diete bizilagunek: “Udaltzaingoak etxeko atarietan jarri du debekatura dagoela katuei jaten ematea, baina, hala eta guztiz ere, bizilagun batzuk janaria botatzen diete leihotik. Bazterretan jatekoa botata egoten da, eta dena zikinkeriaz beteta geratzen da. Mesedez eskatu nahiko genuke horrelakorik ez egiteko. Mila esker”.



Urasandiko eskailera mekanikoak eguerdian garbitzen dituzte askotan: “Ondo dago eskailera mekanikoak garbitzea, baina, nire ustez, garbiketarako eta mantenurako ordutegia kontuan hartu beharko lukete. Urasandi auzoan eguerdian garbitzen dituzte askotan. Ordu horretan jende asko ibiltzen da ingurune horretan, eta eskailerek martxan egon behar dute. Eskertuko genuke kontuan hartzea. Mila esker”.



Zuen kexak, gaidarak edo txaloak bidaltzeko:
barren@elgoibarkoizarra.com / 943-74 41 12



2008ko azaroaren 12an hil zen.
I. URTEURRENA

ANGEL GARATE ALBIZU eta ARRATE GARATE ZENDOIA

*Erraza izan zen zuek maitatzea.
Ezinezko izango da zuek ahaztea.
Beti gurekin izango zaituztegu.*



2002ko urriaren 27an hil zen
VII. URTEURRENA

Meza azaroaren 14ean, zapatuan, izango da arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome parrokiari. Joango zaretenoi eskerrak alde zuretik.



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enrantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Errespetu falta. Norena?

Bitxia da zenbaitzuk errespetuaren kontzeptuaz duten ikusmoldea. Alfredo Etxeberria gure alkateak, esaterako. EB-Aralarreko zinegotziok bere politika kritikatu edo gure desadostasuna azaltzen diogun bakoitzean, matraka berarekin erantzuten digu. Horretarako aukera txikiena daukanean, gainera, errespetu falta aurpegiratzen digu. Errespetu falta, halako batzordetara ez garelako joan, eta guk kritikaturakoa han eztabaidatu zelako. Bere iritiz, udalbatza ez da foro egokia gure kritikak plazaratzeko, baina ahaztu egiten du berak ere udalbatzak erabiltzen dituela, komunikabideen aurrean bere kritikak eta jarrerak azaltzeko.

Jakin beharko luke Etxeberria jaunak, EB-Aralarreko zinegotziak ez gaudela Udaleko lana egiteko liberatuak; hau da, egunero gure etxeetara ogia eramateko lan egin behar dugula. Guri Elgoibartik kanpo lan egitea egokitu zaigu, eta bi bakarrik ere bagarenez, zaila izaten zaigu bilera eta batzorde guztietara iristea. Ez dugu hau esaten jendaurrean justifikatzeko, bilera eta batzorde guztietara joateak ez daukalako zerikusirik Udalaren egunerokoaren jarraipena ez egitearekin.

Aztertu beharko luke alkateak oposizioko bi zinegotzi zergatik ez zaizkion bilera eta batzorde batzuetara azaltzen, benetan politika egiteko modu partehartzailean sinesten badu. Guk, gure alde-tik, lagunduko diogu azterketa hori egiten dugun bezala, herritik kanpo egiten dugun lan eta ezin beti garaiz iritsi.

Baina, gainera, Legealdiko Planaren Jarraipen Batzordearen bilerak ostiral goizetan izaten dira, goiz osoz. Nolatan joango gara bilerara Udaletik kanpo gure lana badugu?

Baina hori gutxi balitz, politika partehartzaileari eta aurkari politikoaren errespetuari muzin nola egiten dion erakusteko beste aukera batzuk ere ematen dizkigu alkate jaunak. Batzorde guztietara ezin gara heldu, baina joateko aukera izanda ere, gure ekarpenak bideratzeko aukera handirik ez genuke izango, batzorde guztiak informatibo hutsak direlako; hau da, guztia ondo egosita eta erabakita heltzen da batzordeetara, eta guri oposizioa egitea tratatzen digu, gure proposamenek aurrera egiteko bideragarritasunik ez dutelako. Gauza bera gertatzen da Gobernu Batzordean. Joaten hasi ginen, baina "harrizko gonbidatuak" ginenez, joateari uztea erabaki genuen. Horri guztiari gaineratu behar zaio dokumentazioa aztertzeke eta kontsultatzeko oso denbora tarte txikia ematen digutela.

Beraz, alkate jauna, nork jokutzen du hemen bestearenganako errespetu faltaz? Errespetuaren inguruko hainbat interpretazio etiko izan daitezke, eta baliteke zuk gure interpretazioarekin bat egitea. Baina gauza batez ziur gaude: zuk eta EB-Aralarreko zinegotziok ez dugu bat egiten politika egiteko modu partehartzailearen kontzeptuan, zure eguneroko jardun politikoan erakusten duzun bezala.

Izaskun Soraluze eta Unai Zulaika
EB-Aralarreko zinegotziak

Eskerrik asko!

Pasa den igandean oso eguraldi petrala eta zatarra izan arren, Elgoibarko, Azkoitiko, Azpeitiko, Zestoako, Zumaia-ko eta Zarauzko 98 gaixo, gutxitu eta laguntzailek egun ederra pasatzeko aukera izan genuen. Mezetan elkartu ondoren, Goofi denda zegoen lekalean bildu ginen mokadu goxoak dastatzeko. Guzti hau Eroski, Landa, Domiko, Armueta, Patxi, Ziarda, Sahatsu, Iraola eta Mari harategiek, Dori txarkuterak, Urkiola, King-Kong, Salento eta Gautxo tabernek, Zabala eta Julito Bueno ardoek, Doña Mercedes, Bolintxo, Izagirre, Fetero, Ibarrenea eta Urasandi okindegiek, Maite eta Muruamendiaraz gozotegiekin borondate onenarekin doan emandako janari eta edariei esker egin ahal izan genuen. Susana ere eskertu nahiko genuke lokala uzteagatik, Elgoibarko Udala, Brigadako eta Gurutze Gorriko langileak eta bazkaria eta ondorengo dantzaldia egin genituen Harzubi jatetxea ahaztu gabe.

Mila esker guztioi egun ilun eta euritsu bat egun argi eta atsegina bihurtu zenutelako!!

Gaixo eta ezinduen bilkurako antolatzaileak

Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enrantzukizunik.

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 74 41 12

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:



ZUZENDARIA Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Oier Narbaiza, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Oier Narbaiza PUBLIZITATEA Leire Rubio, Eneritz Lazkano MAKETATZAILA Zalao Armaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILAK Oihana Tarragual, Anjel Bazterretxea, Ane Odria, Maialen Olazabal, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Abel Irizar, Alberto Agirreazaldegui, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Eva Garcia, Miriam Garcia, Jesus Mari Makazaga, Juanito Gorostiza. INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.760 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855



Unai Arrieta

Trazendental-trazendental natorkizu gaur ere, Zuhaitz. Bada loa kentzen didan kontu bat. Jendartean bizi gara, eta jendarteak bizi gaitu, baina sarri gure ingurukoekiko harremanak ez dira batere emankorrek izaten.



Zuhaitz Gurrutxaga

Trazendental zatozkit bai gaurkoan, Unai. Norbaitek esana da gizakiok bi belarri eta aho bat ditugula, hitz egin behar dugunaren bikoitza entzun ahal izateko. Noski, kasu gehienetan jendeak, norberak hitz egiten duenaren erdia ere ez dio parekoari entzuten.

Ez nago ni inori irakasgaririk emateko moduan. Inguruko lagunek sinpatikoki bada ere, nahiko egozentrikotzat jo izan nautte beti. Ez naiz erraz isiltzen den horietakoa, eta nire anekdota

“Jendarteak bizi gaitu, baina askotan ez gara gai gure ingurukoekin sintonizatzeko”

Nitaz hitzegiten pasaten dugu egunaren zatirik handiena: nire poz eta penak, nire iritzi eta asmoak... itsu, ate itxiak ixten, alboan eta aurrean dugunari erreparatu ere egin gabe. Jendartean bizi gara eta jendarteak bizi gaitu baina askotan ez gara gai gure ingurukoekin topatu, sintonizatu eta konektatzeko.

Elkar-ulermenak eta komunikazioak entzutea eskatzen du, aurrean duguna ulertu eta kontutan hartzea. Elkarrulermenak finean, aurrean dugun horren lekuan jartzea eskatzen du, urrutiko egoerak hurbilagozea.

Susmoa daukat, Zuhaitz, enpatia kontu hau gure eguneroko zailtasunetako bat izateaz gain, gure herriko gatazka polikoaren gakoetako bat ez ote den. Gu bezain hankamotz ikusten ditut gure politikariak elkargune txikiena ere lortzerako orduan. Badaukagu denok ere zer ikasia eta hobetua. Bada garaia aurrerapausuak ematen hasteko!

“Gehienetan, hitz egiten duenaren erdia ere ez dio parekoari entzuten jendeak”

sorta oparoez jardun ohi dut monologista aspergarri gisa. Gустura saiatzen naiz jendeari irrifarre bat atera nahi horretan eta noizean behin lortzen dudalakoan nago. Baina bai, badaukat neronek ere aurrean dudanari behar bezalako arreta ez jartzearen gabezia hori. Inoiz pentsatu izan dut guzti honen arrazoia zein datekeen. Futbolaren, gure lanaren jarraitzaile asko da inguruan, eta gerturatzen den askok monotema bihurtu ohi dute, beraien istoriaz hitz egiteko inongo asmorik erakutsi gabe. Hala, nitaz eta nire ogibideaz behin eta berriz hitz egitera bultzatuz. Hala ere, pixkanaka saiatzen ari naiz, futbolaz galdezka datorkidan harakinari indioilar bularkien prezioaz galdetzen, edo eta kotxe saltzaileari salmentak nola doazen konta diezadan eskatzen. Ea dauzkadan konbertsazioak hobetzen ditudan.

Politikariez, Unai, to nire kasuan gero eta erabilgarriagoa zaidan topiko banal bat. Lau belarri erabiliz, esaten dutena birritan entzun arren, ulertzeko lanak dauzkat. Enpatia kontua, ziur.



Elgoibarko Udala



ELISKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



‘Facebook’ edo ‘Twenty’ bezalako guneek kezka sortu dute gurasoen artean.

Badaukazu sare sozialetan ibiltzeko ohiturarik?



Tomas Azpeleta
15 urte, ikaslea

Bai, *Twenty* gunean ibiltzen naiz ni. Jartzen dudan informazioa nire lagunak bakarrik ikusten dute, ez da informazio publikoa. Ez naiz gehiegi ibiltzen, baina lasai nago, nire buruari buruzko informazioa ez da urrutira iritsiko. Lagunak egiteko bali du, eta gustatzen zait.



Omar Gonzalez
15 urte, ikaslea

Bai. *Facebook*en ez naiz ibiltzen, baina *Twenty* erabiltzen dut lagunekin hitz egiteko. Nik ez ditut argazkiak jartzen, baina besteenak ikustea gustatzen zait. Hala ere, lasai idazten dut, gurasoek ez baitakite horrelakoetan ibiltzen, eta ez dira nire gauzen gainean enteratuko.



Julen Tabira
15 urte, ikaslea

Bai. Ikastolako ordenagailuan ibili izan naiz batzutan, eta pasahitza gordeta geratzen da memorian. Badakit irakasle batzuk gero ibili direla begira, eta hori ez dago ondo. Nik ezagunak bakarrik onartzen ditut lagun izateko. Kontuz ibili behar dela uste dut.



David Rey
35 urte, peoi espezialista

Ez dut sare sozialen beharrik izan oraindik, eta ez naiz ibiltzen. Dena dela, lagunekin harremanak edukitzeko nahiago dut aurrez-aurre geratu. *Messenger* erabiltzen dut batzuetan, baina etxean ez daukat Internetik, eta, beraz, ez dut gehiegi erabiltzen.



ASCEN NUÑEZ GAÑAN

*Berehala joan zara,
baina zure poza eta sendotasuna
beti izango ditugu gogoan.*

Zure lagunak






**AIRETIK ATERATAKO
ERRETRATUAK
SALGAI!**

Eskatu zeurea!
Informa zaituz
943 744 112 telefonoan.

B
BARREN

**GIDA KOMERTZIALA
2009-2010**

**Gida komertziala prestatzen ari gara,
zure negozioaren telefonoa agertzea nahi baduzu,
deitu zenbaki honetara:**

943 743 704

edo helbide honetara idatzi:

barren.publi@elgoibarkoizarra.com

B
BARREN

Elgoibartarren arteko bizikidetza ona dela uste du herritarren %72,8k

Ikerketaren emaitzak azaroaren 19an aurkeztuko dituzte Kultur Etxean

Elgoibarko Udalak eginiko ikerketaren arabera, elgoibartarren arteko bizikidetza ona dela uste du herritarren %72,8k. Bestalde, %14,1ek hobetzeko modukoa dela uste du, eta %9k oso ona dela dio.

Gizagune Fundazioak egin du Elgoibarko egoeraren diagnostika kale inkesta eta eztabaida guneen bitartez. 380 elgoibartarrek erantzun dituzte bizikidetzari buruzko galderak. Eztabaida gunek eta alor politikoan diharduten 13 laguni eginiko elkarrizketak ere erabili dituzte diagnostika egiteko. Azaroaren 19an aurkeztuko dituzte diagnostikoaren emaitzak Kultur Etxean, arratsaldeko 18:30ean. Diagnostika egiten parte hartu dutenez gain, herritar guztiak gonbidatuta daude.

Zapatu arratsaldeak eta inmigrazioa

Elgoibartarren bizikidetzan arazo edo eragin gehien duten faktoreen artean zapatu arratsaldeak aipatu dituzte gehienek. Horrez gain, inmigrazioa ere arazotzat jo dute hainbat herritarrek. Diagnostikaren arabera, etorkinek, baliabide gutxikoek, batez ere, bizikidetzan eragin eta euskal ohituren biziraupena arriskuan jarriko duten beldur dira hainbat elgoibartar. Aisialdirako ekipamendu falta eta aparkaleku gabezia ere nabarmendu dituzte beste batzuek.

Bestalde, Elgoibarren bizi-kalitate handia dagoela aitortzen dute ikerketan parte hartu duten herritarrek, eta, aldi berean, berekoikia edo indibidualismoa nagusitzen dela uste dute askok.



Krisi ekonomikoak osasunean sortzen dituen arazoak aztertu ditu Gurutze Gorriak, Portal Solidarioa kanpainaren bidez



Elgoibarko Gurutze Gorriak *Portal Solidarioa* kanpaina jarri du martxan aurten ere, eta hainbat ekintza antolatu ditu horren harira. Tartean, krisi ekonomikoak osasunean sortzen dituen arazoei buruzko hitzaldia eskaini zuten martitzenean, Kultur Etxeko sotoan. Besteak beste, krisiaren ondorio zuzenak lan-ezegonkortasuna, langabeziaren gehitzea, hipoteka ordaintzeko zailtasunak eta elikagaien murrizketa direla aipatu zuten. Lasaitasun mezua zabaltzeko zuten, eta krisi egoerari aurre egiteko gomendioak eman zituzten.

Elgoibarko Gurutze Gorriak eskerrak eman nahi dizkie kanpaina parte hartzen diharduten atari solidarioei. Une honetan Elgoibarko eta Sorluzeko 262 bizilagunek bat egin dute *Portal Solidarioa* kanpainarekin.

Lekua **Baserri gunea**




Debemen elkarrekin landa garapenean bizi diren pertsona ezinduen ikerketa egin du, eta aste honetan eman ditu horren gaineko datuak. Lehenik eta behin egoeraren azterketa egin dute. Ondoren, ezinduek eta euren zaintzaileek dituzten beharrak jaso dituzte, eta azkenik arazoei aurre egiteko proposamenak jarri dituzte mahai gainean. Txostenaren arabera, landa eremua ahaztuta dago. Ondorioz, bizilagunentzako atentzio gehiago eta baserri guneetako seinalizazioa hobetzea eskatu dute, besteak beste.

Berbia **Hiri Antolamendurako Plan Nagusia**

Azaroaren 15ean itxiko da Hiri Antolamendu Plan Nagusiari buruzko erakusketa. Uztailean jarri zuen Udalak ikusgai plan nagusiaren aurrerapen txostena, eta elgoibartarrek alegazioak egiteko aukera izan dute. Etorkizuneko herria antolatzekeo tresna da plan nagusia, horretarako herritarren parte-hartzea ezinbestekotzat jo dute Udaleko arduradunek. Interesatuak asteburuan izango dute erakusketa ikusi eta porposamenak egiteko azken aukera. Antonio Arrillaga 6. zenbakian (sarrera Santa Ana kaletik) dago ikusgai txostena.

Irudia **Deba ibaia, gainezka**

Begirada asko jaso ditu aste honetan ere Deba ibaiak. Euri jasaren ondorioz, urak handi etorri dira, eta Maltzaga inguruan bidegorria azpian hartu zuen ibaiak astelehenean. Uraren mailak gora egiten zuela ikusita, Elgoibar eta Maltzaga arteko bidegorriaren hasieran arriskuaz ohartarazten zuen ohar bat jarri zuten, eta azkenean gainezka egin zuten.



Zaharren egoitzetan aldi baterako egonaldiak

Zaharren egoitzetan aldi baterako egonaldiak egiteko programa antolatu du Foru Aldundiak Gabonetarako, eta eskaerak egiteko epea irekita dago. Lehenengo hamabostaldirako egonaldiak nahi dituztenek azaroaren 23a baino lehen egin behar dute eskaera, eta bigarren hamabostaldirako epea azaroaren 30ean amaituko da. Interesatuak Udaleko Ongizate Sailean eskatu dezakete informazio gehiago.

Elgoibartik Ermuraino luzatuko dute bidegorria

Elgoibar eta Maltzaga arteko bidegorria Eibarreraino luzatzeko asmoa itxura hartzen ari da. Azitain auzoraino luzatuko dute bidegorria, eta Eibar zeharkatuko duen bidegorrarekin bat egingo du. Beraz, Elgoibartik Ermuraino bizikletaz joateko aukera izango da. Proiektuak oraindik ez dauka epe zehatzik, baina dagoeneko Foru Aldundiak proiektua idazteko lehiaketa jarri du martxan.

Konposta egiteko kanpaina

Etxean lorategia edo baratza dutenek, materia organikoarekin konposta egiteko konpostagailuak eskatzeko aukera izango dute, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Mankomunitateek antolatu duten kanpaina berriari esker. Informazio eskuratzeko interesatuak 943 744 384 telefonora deitu dezakete.

Arnaldo Otegi kartzelaz aldatu dute

Arnaldo Otegi Madrilgo Navalcarnero kartzelan egongo da aurrerantzean. Urriaren 13an atxilotu zuten elgoibartarra, ezker abertzalearen kontrako operazioan. Batasunaren Mahai Nazional berria osatzen saiatzea leporatu dio Auzitegi Nazionaleko Baltasar Garzon epaileak.

AGUSTINDARREN ITZALEAN

Hamazazpi urte bete dira agustindarren kongregazioko mojek Mendaro laga zutela. “Derrigorrean laga genuen”, azaldu digu ama Gemmak Bartzelonatik. Adinean aurrera zihoazen, eta ez zegoen jende berria erakartzeko itxurarik. Komentua laga, eta Bartzelonara joan ziren, Euskal Herrian bertan kongregazio bereko gehiago egon arren. Erabaki horretan, zerikusi handia izan zuen Bartzelonako komentuan Mendaroko alaba bat egoteak. Juana Azpiazu *Gartzianekoa* komentuko nagusia zen orduan. Horrexegatik Bartzelonara joan ziren guztiak, apurka-apurka. 1572an sortu zuten komentua, eta 1992an irten ziren azkeneko mojak.

Ainara Argoitia



Agustindarren konbentua. Gaur egun, San Agustín Kulturgunea da.

Garagartza auzoan zegoen agustindarren konbentua, gaur egun San Agustín kultur etxea dagoen lekuan. Atzeko aldera, ortu handi bat zuten mojek, eta bertan lan egiten zuten haietako batzuk. Klausurakoak ziren berez, baina hala ere, harreman estua zuten herritarrekin, bereziki eskolak ematen jarduten zutenek. “Familia handi bat ginen”, dio ama Gemmak. Ia azkenera arte, irakasle aritu zen Gemma.



Goiko ilaran: Ama Teresa, ama Isabel, ama Elena “Txilena”, Angel abadea, ama Consolacion, ama Mari Cruz. Behean: ama Clara, ama Gemma, ama Inmaculada.

Mojen eskuetatik haur eta nerabe asko pasatu dira. Balbi Vives mendarorarra, esate baterako, bertan ibilia da umetan. 10-11 urterekin hasi zen mojetan, eta 14 bat urte bete arte egon zen han. Sasoi hartan neskak bakarrik hartzen zituzten. Eskolako ohiko gaiez gain, josten ere irakasten zuten bertan, arratsaldeetan, eta neska ugari joaten ziren Elgoibartik-eta. Mendaron, baina, baziren, beste bi ikastetxe ere orduan: Eskola Nazionalak. Neskena, Azpilgoetan zegoen, Kultur Etxean; mutilena, berriz, gaur egun haur eskola dagoen eraikinean.

Balbik ondo gogoan ditu mojetan hasi zeneko garai hura. Komentuaren pare-parean bizi ziren, eta, orain ere, zuzeneko harremana dute haiekin. “Umetan, mojek ospatzen zituzten jai guztiak ospatzen ginen guk etxean. Haiek jai egiten bazuten, geuk ere bai. Eta orain ere, sarri hitz egiten dut monjekin. Hemengo berri ematen diet, eta nik deituzerako, askotan jakinaren gainean egoten dira, herriko beste askok ere badutelako tratua haiekin. Askok gogoratzen dira Mendarorekin”. Umetan, baina, ezkutuko mundu bat zen komentua Balbirentzat, eta kuriositate handia izaten zuen klausurako moja haiek atetik barrura zertan ibiltzen ziren jakitzeko. “Gure irakaslea kanpora irteten zenean, gelako balkoira irteten ginen gu, eta sukaldean lanean ari zirenei begira egoten ginen. Zerbait ikusi nahi izaten genuen, baina ezkutuan begira ari ginenean, ama Inmaculada etortzen zen, eta belarriak jaitzita joan behar izaten ginen gure lekura. Bizkaitarra zen ama Inmaculada. Pertsona ona, baina zorrotza oso”, azaldu digu.



Lehenengo argazkia: Goian: María Dolores Landa, Maridel Iglesias eta Milagros Landa. Jarrita: Mari Sol Gurrutxaga, Iciar García, Arrate Bilbao, Mari Tere Barrenetxea, Balbi Vives, Mariasun Zabaleta eta Begoña Andonegi. **Bigarren argazkia:** Tente: Gloria Larrañaga, Nuria Salegi, Mari Karmen Ansola, Blanca Zuluaga, ama Isabel, Margari Lazkano, María Dolores Zezeaga, Mariasun Olazabal, Maria Angeles Urain, ama Teresa, eta Maria Angeles Salegi. Makurtuta: Maria Angeles Olazabal, Bene Larrañaga, Txaro Izagirre eta Sagrario Bereziartua. **Hirugarren argazkia:** Mojak Bartzelonara joan zirenean egin zieten omenaldiko argazkia.

Oroitzapen onak gordetzen ditu Balbik garai haien inguruan, eta mojek herriari “bizitasun handia” eman ziotela nabarmendu du. “Klausurako mojak ziren, baina oso zabalak”. Bat dator Angel apaiza ere. Bai Balbik eta baita Angel abadeak ere gogoan daukate ama Isabelek danborrada zuzendu zueneko. “Donostiari peto-petoa zen, eta modu berezian bizi zuen San Sebastian eguna. Jai batzuetan, Garagartzako plazara irten zen haurren danborradan San Sebastian martxa zuzentzera”.

Bartzelonara joan zirenean, omenaldi beroa eskaini zien herriak. Mendarotar ugarik parte hartu zuten, eta Jose Maria Setien Gipuzkoako gotzaina etorri zen meza ematera. “Ikaragarria izan zen. Inoiz ezingo dugu ahaztu ordukoa, eta orain ere poz handia hartzen dugu bisitan etortzen zaizkigunear”, nabarmendu du Gemmak. Oraindik herria ez bazen ere, Mendarotar “herri handi bat” zela dio: “Oso gertukoak ginen denok. Zenbat duda eta zenbat negar egin ote genuen hortik alde egiteko eguna iritsi zenean. Ama Teresak, esaterako, ikaragarri sentitu zuen. Horri eutsi nahi zion. Neuri ere gogorra egin zitzaidan, eta orain ere sarri egoten naiz argazkiei begira. Gainera, Bartzelona eta Mendarotar hain dira ezberdinak...”.

Ama Teresak erabileraren bat eman nahi zion komentuari. Ez zuen jausten ikusi nahi, eta sufritu zuen, haurrik eta Bartzelonara joatea saihestezina zela onartu zuen arte. “Zahar-etxe bat, josten irakasteko eskola bat edo herriaren mesederako izango zen beste zerbait egiteko esanez deitzen zigun”, esan du horren harira Balbik. Bota zuten, baina, konbentua. Kanpai-dorrea, eta sarreretako bat mantendu zituzten, eta gaur egun San Agustin kulturgunea da. Kanpai-dorreak banan-banan kendu zituzten, obra egin ostean berriz jartzeko asmotan, baina zulo txikiak egin zuten kanpaiatzat, eta isilik daude gaur egun.

Ikastolen lehen urratsak

Itxi bitartean, komentua bera izan zen ikastola hasiberriaren estalki. Izan ere, Mendarotar ikastolak han bertan egin zituen lehenengo urratsak. Mendarotar herri egin aurretik izan zen hori, 1972. urte aldera. Garai hartan bi zatitan banatua zegoen Mendarotar. Erdia Mutriku zen, eta beste erdia, Elgoibar. Bazen, hala ere, inplikazio handiko kultur elkarre bat: Gurutzpe. Haren bueltan, guraso taldeetako batek ikastola sortzeko lanari ekin zion. Imanol Laspiur euskaltzale eibartarra izan zuten aholkulari Mendarotar. Juanita Loiolari hasi zen andereño, 18 urte eskakin.

Elizaren izenean zabaldu zuten ikastola, beste aukerarik ez zegoelako sasoi hartan. Hala, komentuko mojai bi lokal hartu zituzten errentan, eta bertan eman zituen lehenengo pausoak Mendarotar ikastolak. Ate beretik sartzen ziren ikastolako haurrak eta mojetakoak, baina gero bakoitzak bere lekua zuen. Urteak pasa ahala, baina, gela hura txiki gelditu zen, eta Garagartzako beste lokal bat ere hartu zuten. Garai hartan, Marijo Aranberri hasi zen Juanitarekin batera irakasle. 6 urte bete arteko haurrak hartzen zituen, baina, ikastolak. Gero, Lehen Hezkuntza bukatutakoan, haurrek Elgoibarrera joan behar izaten zuten, ikasketak euskaraz jarraitzeko. Laster konturatu ziren horrek ez zuela zentzurik. Euskara sustatu

eta Mendarotar bere izaerari eutsiko bazion, ikastola handitu beharra zegoen. Hala, bilera askoren ondoren, monjek eta ikastolak bat egitea erabaki zuten 1976 inguruan, baldintza batekin: Lehen Hezkuntzako lehenengo bi mailak ere euskaraz ematea.

Ikastolek sare publikoan sartzeko gonbidapena jaso zutenean erabaki zuten gaur egungo ikastola, orain hamabost bat urte. Orduan, ikastola hiru eraikinetan banatuta zegoen: Konbentuan, garai bateko bizkotxotegian eta Aizpe elkarrearen atzean jaso zuten eraikin prefabrikatu batean. Publiko eginez gero, eraikin berria eraikiko zutela aginduta zuten Deleagaritzak, eta herriaren gehiengoak baietza eman zuten.

“Oso gertukoak ginen denok. Zenbat duda eta zenbat negar ez ote genuen hortik alde egiteko eguna iritsi zenean”

AMA GEMMA

Andoni Egañak eta Iker Zubeldiak giro paregabea jarri zuten gaztetxean



Bertso afari arrakastatsua egin zen joan zen barixakuan Mendaron, Gazte Asanbladak antolatuta. Andoni Egaña eta Iker Zubeldia bertsolariak ekarri zituzten kantura, eta giro paregabea sortu zuten haiek, afalurreko trikiti-bertso poteoan zein afalosteko bertso saioan. Alain Ulazia mendararra aritu zen gai-jartzaile, eta bertsolariek primeran jardun zuten haren aginduetara. Euskal Herriko bertsolari txapelketa, luizi batek botatako Santanako ermita, uso pasea, marihuana eta bestelakoak zein bikote kontuak erabili zituzten, denak ere umore handiz. Puntuka nahiz banaka jardun zuten Egañak eta Zubeldiak, eta bukaeran, *segidilla* batzuk ere bota zituzten, maisutasunez.

Kanpaina berezia hasiko dute Mendaron koadrilen artean, 'Egunkariaren' kontrako epaiketa salatzeko



Epaiaketaren atarian, hainbat ekintza antolatu ditu Mendaron *Egunkariaren* aldeko herri plataformak, auzipetuei elkartasuna agertu eta epaiaketarako dirua biltzeko asmoz. Joan zen eguaztenean bilera informatibo bat egin zuten udaletxeko batzar aretoan, eta, besteak beste, herrian kanpaina berezi bat abiatzea adostu zuten. Espainiako Auzitegi Nazionalak datarik zehaztu ez duen arren, laster hasiko dira *Egunkaria*-ko bost auzipetu epaitzen: Martxelo Otamendi, Txema Auzmendi, Joan Mari Torreal-dai, Xabier Oleaga eta Iñaki Uri. Horren aurrean, eta kasuaren larriaz informatzeko asmoz, kartelak jarriko dituzte herrian, *Gu ere Egunkariaren alde* leloarekin. Horretarako, herriko koadrilengana joko dute, laguntza eske. Era berean, abenduaren 5ean, argazki handi bat aterako dute herrian, eta ordurako ahalik eta jende gehien bildu nahi dute. 10 euroko bonoak eta kamisetak ere jarri dituzte salgai.

m o t z

Txirindularitzari buruzko jardunaldiak udaletxean

Oreki fundazioak antolatuta, txirindularitzaren gaineko jardunaldiak egingo dira Mendaron gaur arratsaldean, eta azaroaren 20an. *Bat-bateko heriotza kirolean* izenburuko hitzaldia emango du gaur Cristian Tianok, eta ondoren, Iñaki Arratibelek prestakuntza fisiologikoak eta ondo elikatzearen garrantziaz jardungo du. Imanol Garciak itxiko du gaurko saioa, *biomekanika eta errendimendua* izenburuko hitzaldiarekin. Gaur zortzi, berriz, txirindularitzaren alderdi etikoez eta txirindularitzarekiko konpromisoez eztabaidatuko dute. 18:30ean hasiko dira hitzaldiak.

Emakumeen kontrako indarkeria aztergai

Azaroaren 25ean, Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Nazioarteko Egunean, Iciar Bollainen *Te doy mis ojos* filma emango dute San Agustin Kultur Etxean, 18:00etatik aurrera. Ondoren, gai horren inguruan hausnartuko dute bertaratu-tako guztiek.

Aire libreko margo lehiaketako lanak erakusgai

Aire libreko margo lehiaketan parte hartu zutenen lanak ikusgai jarri dituzte Lagun Betikoak tabernan. Joan zen barixakuan zabaldu zuten, eta azaroaren 22a bitartean izango da ikusteko moduan.

Alkortara igoera jokatu da bihar zortzi

Lasterkariek hitzordu berezia dute bihar zortzi, Mendaron. Izan ere, Alkortarako igoera jokatu da hilaren 21ean, 11:00etan Plazan hasita. Karakaten indarrak neurtuta iritsiko dira batzuk Alkortara.

Erretratu zaharra



1987

Aste honetako erretratu zaharra Itziar Kondek ekarri du BARREnera. Berlingo harresiaren aurrean ateratako erretratua da, 1987. urtean. Aste honetan, azaroaren 9an, bete dira 20 urte harresia erori zenetik, eta horren harira, ekarri dute argazkia BARRE-Neko erredakziora. Abuztuan joan ziren emakume horiek Alemania aldera, eta oporrak primeran pasatu zituztela adierazi dute. Gogoratu ditzagun argazkian azaltzen direnak:

Ezkerretik eskumara: Faustina Zubiaurre, Rosita Herrero, Pakita Opakua, Tere Alberdi, Maria Angeles Lizundia, Itziar Ajuria eta Itziar Konde.

Makurtuta: Kontxita Armendia.

Gure berbak



Azaruaren 11 ateri esnatu zan, eta eguzkixak ere hor segitzen dabala ikusteko aukeria izan genduan, aspal-diko partez. Eguazteneroko moduan, aliaren azken erremate-lanekin hasi giñan, eta, halako batian, Zaloaren berbak nagusitu ziran: *"Makak ez digu bere artikulua bialdu, ezta?"*. Ainhoak erantzun zion: *"Zelako arrarua! Makak beti bialtzen digu fin-fin bere zutabia"*. Hamarrak aldera jaso genduan Imanolen e-maila: *"Makaren emaztia hil da"*. Kaka! Badakigu Makak zergaittik ez digun aste honetako zutabia entregau. Derrepentian, laiño beltzek eguzkixa tapatu zeben gure gaiñian.

Maka, 2005ian ekin zenion BARREn idaztiari, *Akordatzen naiz atal-ian; akordatzen zera?* Gero, 2008xan,

Gure berbak idazten hasi ziñan, elgoi-bartarron berbak herrixari ezagutzera emateko. Lau urtian astero gorde dizugu txokotxo bat, eta badakigu jendiak oso gustora irakurtzen dittuala zuk idatzittakuak. Baiña, gaurkuan, zure per-misuarekin, zutabe honetan gure berbak jungo dira. Sentitzen dogula esateko. Zure miña guria ere badala erakusteko.

Aste honetako zure berbak gorde lrenerentzat eta lbonentzat. Hartu bixak mantalian, eta esaezu amatxok asko maitte dittuala. Gehixago ez debela ikusiko, baiña ama beti egongo dala bixen onduan. Besarkada bat, Maka, eta nahi dozun arte.

BARREneko lantaldia



ASCEN NUÑEZ GAÑAN

ZURE OROIMENAK INDARTZEN GAITU.

BIHOTZEZ, IMHKO LANKIDEAK.



‘Tailerreko eskuliburu tekniko’ berrituta eta hobetuta argitaratu du Danobat enpresak

Erreminta-makinaren sektoreko terminologia arazoei erantzuna ematea da helburua

Danobat enpresako Euskara Batzordeak *Tailerreko eskuliburu tekniko* liburuaren bigarren edizioa argitaratu du, eta martitzenean egin zuten aurkezpena. Orain dela bost urte kaleratu zuten lehen edizioa, Danobat enpresaren 50. urteurrenean, alegia. Lehenengo edizioak izan zuen arrakastaren ondoren, bigarren hau hobetuta eta eguneratuta dago, Mondragon Unibertsitatearen laguntzari esker. Euskaraz soilik dagoen eskuliburu tekniko arreminta-makinako langileentzako kaleratu dute, batez ere, baina baita alor horretan lan egin nahi duten Unibertsitateko edota Lanbide Heziketako ikasleentzako ere.

Liburuaren helburu nagusia arreminta-makinaren sektoreko terminologia arazoei erantzuna ematea da. Alde batetik, diseinatzaileentzat informazio oso erabilgarria jasotzen du, eta, bestetik, muntatzaile eta mekanizatzaileentzat baliagarriak diren hainbat taula ditu. Horrez gain, eskuliburuak elektrizitatea eta elektronikako oinarriko formulario bat eta hiztegi txiki bat jasotzen ditu.

Erabilerrazagoa

Jesus Maria Astigarraga Danobateko presidentea azaldu duenez, hiru urteko lanaren esfortzua da eskuliburu berria, eta, aurrekoarekin alderatuz, erabilerrazagoa dela nabarmendu du. Lehen edizioak izan duen arrakasta eta barneratze maila zirimiriarekin alderatu zituen presidentea aurkezpenean: “Hau ez da euri jasa handi bat modukoa. Zirimiria bezalakoa da, eta langileak poliki-poliki ohitu behar dute lanean gazteleraz ezagutzen dituzten berbak



euskaraz erabiltzera”. Iosu Zabala Mondragon Unibertsitateko errektorea, berriz, liburu argitaratzearekin bakarrik ez direla konformatzen argi laga nahi izan zuen, eta liburuaren zabalpenean lan egiteko konpromisoa hartuko dutela adierazi zuen.

Argitaratutako 1.500 aleak Danobateko langile, bezero, hornitzaile eta Mondragon Unibertsitateko ikasle eta irakasleek eskuragarri izango dute. Era berean, Mondragon Unibertsitateak eskuliburu bere prestakuntza zentroi ere eskainiko die. Bestalde, liburuaren abenduaren 4tik 8ra egingo den Durangoko Liburu Azokan salgai egongo da Mondragon Unibertsitateko standean.

‘Ane Pirata’ ipuina kaleratuko dute Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoe



Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoe *Ane Pirata* liburuaren kaleratuko dute. *Eskerrik Ask!* ikuskizunean bezalaxe, Ane Perez elgoibartarrarengan oinarritutako ipuina izango da. Mixel Murua idatzi du liburuaren, eta Elkar argitaletxeak kaleratuko du. Proiektu honetan, bestalde, Aspanovas, haur minbizidunen gurasoen elkarteak ere hartu du parte. Pirritxek, Porrotxek eta Marimototsek lagun handi bati bisita egin zioten behin ospitalean. Ane izena du eta pirata izan nahi du. Gai hori dago Ane, baina oso pozik; izan ere, pirata izateko nahia bete baitaio. Pirata on bihurtzeko maisu on bat dauka Ane pirata: Patakon. Pirata festazalea da, eta inork baino hobeto daki piraten lezio ederrak ematen.

‘Cyrano’ txotxongilo ikuskizuna domekan

Gorakada antzerki taldeak *Cyrano* txotxongilo ikuskizuna aurkeztuko du domekan, hilaren 15ean, Herriko Antzokian. Claudio Hochamanena da jatorrizko bertsioa, eta Oihane Enbeitak euskaratu du. Maitasun istorioa da, *Cyrano*, ezinezko maitasunaren istorioa, alegia. 7 urtetik gorako umeentzako emanaldia da berez, baina helduen bihotzak ere hunkituko ditu. Sarrerak www.kutxa.es atarian erosi daitezke aurrez, eta bestela, txarteldegian bertan. Ikuskizuna 16:30ean hasiko da.



Maia eta Amurizaren emanaldia izan da Gotzon Garateren omenezko azken saioa

XX. mendeko giro politiko eta soziala deskribatu zituzten

Jon Maiak eta Xabier Amurizak *Mende baten aldarria* bertso ikuskizuna eskaini zuten eguaztenean, Gotzon Garate idazle eta euskaltzalearen omenezko hitzaldi-zikloaren barruan. Ahozko literaturaren altxorra jendearen belarrietara heltzea izan da ikuskizun honen helburua. Asmo horrekin, XX. mendeko giro politiko eta soziala deskribatzen duten aleak aukeratu zituzten bertsolariak. Elgoibarko Izarra kultur elkarteak eta Udalak elkarlanean antolatu dituzte Gotzon Garateren omenaldiko ekitaldiak. Hauxe izan zen programazioko azken jarduera.



Izaro Etxegibel, Gurean-Bai egitasmoko aurpegi berria

Izaro Etxegibel elgoibartarra izango da datozen hilabeteotan Gurean-Bai egitasmoko teknikaria. Amaia Lasagabaster eibartarra haurdun dago, eta amatasun bajaran dagoen bitartean, Izaro Etxegibelek ordezkaturko du.



Arte eta literatura tailerrak Haizearekin

Haizea emakume taldeak antolatuta, arte eta literatura tailerrak izango dira azaroan. Hilaren 23an *El cordero místico* izeneko arte tailerra eskainiko dute Kultur Etxean, 17:00etan hasita. Bestalde, hilaren 24an, *Cumbres borrascosas* liburua aztertuko dute Liburutegian egingo den literatura tailerrean, 18:00etatik aurrera.

Paintballera irteera

Gazte Informazio Guneak Mendaroko paintballera irteera antolatu du, azaroaren 28rako. Interesatuak 10 euro ordaindu beharko dituzte parte hartzeko (Ikasle edo Gazte Txartelarekin 8 euro) 16 urtetik gorako guztiek eman dezakete izena, azaroaren 23a baino lehen.

Perretxiko erakusketan jende asko ibili da eta balorazio positiboa egin dute antolatzaileek



Karakate mikologia elkarteak antolatuta, perretxiko erakusketa izan zen joan zen domekan, hilaren 8an, Kultur Etxeko sotoan. Antolatzaileek esandakoaren arabera, eguraldi txarra egin arren jende asko gerturatu zen erakusketara, eta pozik agertu dira elgoibartarren erantzunarekin. Astelehenean ikastetxeetako umeek bisitatu zuten erakusketa, eta perretxikoen gaineko oinarrizko informazioa eskuratzeko aukera izan zuten. Aurtengo edizioan 160 perretxiko mota ezberdin izan dira erakusketan.

ESKERTZA

JOSE MARI LARREINA IRIARTE



2009ko azaroaren 4an hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



93 elgoibartar eta zazpi mendaroarrek amaitu zuten Behobia

Euri jasa mardulei eta haize bolada indartsuei aurre eginez, 14.990 atletek amaitu zuten joan zen domekan Behobia-Donostia lasterketa, tartean 93 elgoibartar eta zazpi mendaroar iritsi ziren Donostiako helmugara. Elgoibartarrik bizkorrena, azken hiru urteetan moduan, Jose Antonio Ruiz (1:11:01) izan da gizonetzkoetan. Emakumeen kategorian, bestalde, Carmen Perea izan da lehen elgoibartarra (1:19:25), eta gainera, lortu du bere helburua: 1:20ren azpitik egitea.

ELGOIBARTAR ETA MENDAROARRAREN SAILKAPENA

IZENA-ABIZENA	POSTUA	DENBORA	IZENA-ABIZENA	POSTUA	DENBORA
Jose Antonio Ruiz del Rey	72	01:11:01	Jorge Gonzalez	6.009	01:36:22
Unai Narbaiza	127	01:12:47	Pablo Barrenetxea	6.061	01:36:28
Ibon Gabilondo	251	01:15:21	Unai Egaña	6.140	01:36:40
Iñigo Lariz	280	01:15:53	Pilar Arriola	6.157	01:36:43
Martin Dominguez	543	01:18:12	Iosu Iriondo	6.798	01:38:09
Carmen Perea	730	01:19:25	Aitor Cornejo	6.918	01:38:27
David Soto	634	01:18:51	Javier Abad	6.953	01:38:33
Mikel Agullo	790	01:19:49	Christian Alonso	7.137	01:39:00
Alberto Garate	792	01:19:50	Mikel Arriola	7.152	01:39:02
David Garrido	838	01:20:05	Carlos Ayesta	7.950	01:40:46
Juan Carlos Martin	860	01:20:14	Jose Antonio Gurrutxaga	7.903	01:40:56
Angel Eguren	945	01:20:51	Javier Agirrebeña	8.117	01:41:23
Aitor Osoro	1.004	01:21:14	Carlos Arribas	8.184	01:41:33
Berex Ortiz	1.117	01:21:48	Ion Gabilondo	8.278	01:41:46
Iñigo Iturbe	1.131	01:21:50	Goiatz Leibar	8.421	01:42:05
Anton Mendizabal	1.253	01:22:27	Xabier Bergaretxe	8.854	01:43:17
Mikel Anakabe	1.369	01:23:01	Nerea Lendinez	8.852	01:43:17
Julen Irizar	1.414	01:23:13	Eduardo Armendia	9.461	01:44:55
Jon Basurto	1.475	01:23:26	Jon Ander Verron	9.478	01:44:58
Danel Fernandez de Jauregi	1.493	01:23:29	Julen San Juan	10.019	01:46:29
Ion Irazabal	1.518	01:23:38	Amaita Jauregi	10.040	01:46:33
Garikoitz Muñoz	1.576	01:23:48	Aitzol Garmendia	10.041	01:46:34
Zigor Azkoaga	1.704	01:24:14	Tomas Azpeleta	10.280	01:47:32
Iker Amutxastegi	2.048	01:25:36	Iñigo Iparragirre	10.482	01:47:50
Asier Artzamendi	2.148	01:25:55	Jabi Guallar	10.486	01:47:52
Luis Anakabe	2.162	01:26:00	Patxi Arberas	10.709	01:48:28
Hector Garrido	2.284	01:26:27	Ioseba Manzano	10.842	01:48:50
Oier Irazabal	2.483	01:27:05	Ana Casquero	10.925	01:49:00
Ainhoa Lendinez	2.590	01:27:25	Maria Jesus Izagirre	10.923	01:49:00
Jose Cruz Guillo	2.701	01:27:46	Ainara Sanchez	11.023	01:49:18
Joseba Zinkunegi	2.763	01:27:57	Imanol Iparragirre	11.353	01:50:28
Jose Ignacio Ortiz de Urbina	2.995	01:28:29	Ainhoa Galarraga	11.356	01:50:29
Iker Jausoro	3.166	01:28:56	Arnaldo Otegi	11.357	01:50:29
Imanol Calleja	3.489	01:29:48	Mikel Ibañez	11.358	01:50:29
Bruno Guerrero	3.556	01:30:00	Jesus Tadeo	11.469	01:50:53
Sebas Etxaniz	3.636	01:30:11	Javier Hernando	11.534	01:51:08
Elias Fernandez	3.757	01:30:31	Jose Ignacio Jauregi	11.744	01:51:59
Fernando Calvo	3.945	01:31:02	Ignacio Mugertza	12.332	01:54:24
Imanol Santos	4.200	01:31:50	Ioseba Sanchez	12.754	01:56:14
Gorka Garaizabal	4.221	01:31:54	Gorka Mujika	13.016	01:57:37
Alberto Seijas	4.426	01:32:25	Unai Lizarralde	13.348	01:59:28
Juan Mari Mendizabal	4.568	01:32:50	Nerea Lariz	14.505	02:12:03
Roberto Alonso	4.573	01:32:50			
Mikel Arosa	4.823	01:33:33			
Asier Arrieta	4.821	01:33:33			
Jon Peli Uriguen	5.023	01:34:00			
Alberto Arberas	5.053	01:34:03			
Ainara Astigarraga	5.163	01:34:17			
Gotzon Gurrutxaga	5.706	01:35:36			
Lourdes San Martin	5.862	01:35:59			
Aitor Treviño	5.967	01:36:16			
			MENDAROARRAK		
			Maite Maiora	2.475	01:27:03
			Jurdan Ezenarro	3.853	01:30:46
			Igor Ezenarro	4.420	01:32:24
			Aitzol Urain	8.495	01:42:19
			Roberto Mangana	10.643	01:48:16
			Jose Ramón Cabello	10.656	01:48:18

Karakateko igoera jokatu da bihar, 11:00etan hasita

Plaza Handian eman daiteke izena proba hasi aurretik

Morkaiko mendizale elkarreak antolatuta, azaroaren 14an izango da Karakateko Igoera, eta aurten berrikuntzekin dator. Sari berria emango dute antolatzaileek, eta ez da izango gailurrera azkarren iristen denarentzat. Azken metroak aurpegi onenarekin egiten dituenak gazta bat jasoko du sari modura. Horrez gain, ohiko sariak emango dituzte. Irabazleak eta lehen emakumeak txapela eta gazta bana jasoko dituzte, eta lehenengo neska eta mutil elgoibartarrek gazta bana eskuratuko dute. Korrikalariak 11:00etan irtengo dira Plaza Handitik. Izen-ematea doan izango da, eta egunean bertan egin-



go da. Lasterketaren ondoren bazkaria egingo dute Konporta elkartean.

Agustin Irustak irabazi du Euskadiko Hiru Txirlo Txapelketa

Bukatu da Euskadiko Hiru Txirlo Txapelketa, eta azken jaurtialdiaren ondoren, Agustin Irusta sanmigeldarrak jantzi du txapela, 17 punturekin. Aiastia-San Migel auzoko partaideak fin hasi zuten txapelketa, eta modu berean amaitu dute, izan ere, taldekako sailkapenean ere eurak izan baitira onenak. 60 txirlorekin San Migel A taldea izan da nagusi.



Emakumeentzako autodefentsa ikastaroa hasiko da hilaren 20an, Udalak antolatutahilaren 20an



Azaroaren 25ean tratu txarren kontrako eguna dela-eta, Udaleko Berdintasun Sailak hainbat ekintza antolatu ditu. Tartean, azaroaren 20an hasiko den emakumeentzako autodefentsa ikastaroa. Zortzi orduko ikastaroa izango da, eta gainerako saioak hilaren 21ean, 27an eta 28an eskainiko dituzte. Luis Agirregomezkorta izango da irakaslea. Interesatuak Olaizaga kiroldegian edo herritarren arretarako bulegoan eman dezakete izena. Informazio gehiago nahi izanez gero, 943 741 050 telefonora deitu daiteke.

EMAITZAK

FUTBOLA

Haundi 1 – Portugalete 0 (3. maila)
 Amaiak Bat 2 – Elgoibar 3 (Erreg.)
 Elgoibar 1 – Orioko 1 (Jub.)
 Elgoibar 7 – Eibartarrak 0 (Kad. A.)
 Mutriku 3 – Elgoibar 3 (Kad. B.)
 Elgoibar 0 – Eibar 2 (Inf.)
 Elgoibar 1 – Beasain 5 (Txiki)
 Aloña Mendi 4 – Elgoibar 3 (Neskak)
 Aloña Mendi 3 – Elgoibar 5 (Aleb.)

ESKUBALOIA

Askartza 20 – Tecnifuelle Elg. 23 (Sen. nesk.)
 Aloña Mendi 20 – Grupo Eibar Elg. 30 (Jub. nesk.)
 Aloña Mendi 17 – IMH Elg. 24 (Kad. nesk.)
 ALkorta Elg. 28 – Donibane 28 (Sen. mut.)
 Lauko Elg. 32 – Zarautz 15 (Kad. nesk.)
 Egia 41 – Beristain Elg. 14 (Jub. mut.)
 Zarautz 32 – Pneumax Elg. 15 (Kad. mut.)
 Aloña Mendi 17 – Aterpe Elg. 24 (Inf. nesk.)
 Txarriduna Elg. 23 – Arrate C 18 (Inf. mut.)
 Pulpo B 24 – Astigarraga Elg. 8 (Inf. nesk.)
 Arrate 4 – Bankoa Elg. 33 (Inf. mut.)

PILOTA

Gipuzkoako txapelketa

Lagunak 20 – Intza 22 (3. mailako nag.)
 Erniope 22 – Lagunak 18 (2. mailako kad.)
 Lagunak 19 – Aurrera Saiaz 22 (3. mailako nag.)
 Pala
 Mundarro 25 – Lagunak 22

ARETO FUTBOLA

Laskorain 2 – Concepto Createch 3 (Nazional B)

SASKIBALOIA

Anbolo 24 – Eskoriatza 16 (Neskak)

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 14
 17:30 Elgoibar – Arretxabaleta (Erreg.)
 12:00 Elgoibar – Soraluze (Kad. B.)
 16:30 Elgoibar – Lagun Onak (Ohorezko jub.)

ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Zapatua, 14
 16:00 Concepto Createch – Astraburuko

ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 14
 9:30 Bankoa Elg. – Txarriduna Elg. (Inf. mut.)
 10:45 Ikus Elg. – Pulpo (Inf. nesk.)
 11:00 Tecnifuelle Elg. – Basauri (Sen. nesk.)
 11:30 Aterpe Elg. – Aloña Mendi C (Inf. nesk.)
 12:45 Astigarraga Elg. – Aloña Mendi A (Inf. nesk.)
 17:30 IMH Elg. – Kukullaga (Kad. nesk.)

Domeka, 15

9:30 Pneumax Elg. – Urola (Sen. nesk.)

ESKU PILOTA (kastolan)

Barbakua, 13

21:15 Lagunak – Oiarpe (2. mailako nag.)
 22:00 Lagunak – Zazpi Iturri (1. mailako nag.)
 23:00 Lagunak – Mundarro (Pala nag.)

LANA

ESKAERA

- Emakumea interna edo externa lan egiteko prest. ☎ **697 702 158**
- Emakumea garbiketa lanak eta pertsona nagusiak eta haurrak zaintzeko prest. ☎ **686 420 642**
- Emakumea pertsona nagusiak zaintzeko prest. Arratsaldez. ☎ **943 743 251**
- Emakumea pertsona nagusiak zaintzeko prest. Arratsaldez. ☎ **943 743 251**
- Pertsona euskalduna garbiketarako egiteko prest. ☎ **687 114 707**
- Neska gaztea haurrak zaintzeko prest. Esperientziaduna. ☎ **680 516 240**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Esperientziarekin. ☎ **618 377 283**
- Emakume euskalduna pertsona nagusiak zaintzeko prest eta etxeko lanak egiteko prest. Esperientziaduna. Goizez. ☎ **660 511 781**
- Emakumea, edozein lan egiteko prest. Edozein orduetan. ☎ **626 018 538**
- Emakumea, interna edo externa lan egiteko prest. Erizaina. ☎ **649 008 036**

- Emakumea orduka edo egun osoan lan egiteko prest. Haurrak edo nagusiak zaintzen eta garbiketa lanak egiten. ☎ **680 250 527**
- Neska arduratsu eta gaztea lan egiteko prest, interna edo externa pertsona nagusik zaintzen edo garbiketa lanetan. ☎ **666 008 974**
- Kamareroa behar da Mendaroko taberna-kafetegi batean. ☎ **943 030 150**
- Gizonezkoa lan bila, garbiketan edo banaketa lanetan. Gida baimena eta auto propioa. ☎ **605 800 582**
- Emakumea, lan egiteko prest 15:00etik aurrera. ☎ **691 532 893**

ESKAITZA

- Asteburuetarako kamareroa behar da. ☎ **943 741 230**

ETXEBIZITZAK ETA LOKALAK

ALOKAIRUA

- Errosario kalean paratamentua alokatzen da. Logela bat, egongela, sukaldea, komuna eta despentsa. Altzrai batzuekin. ☎ **653 863 482**
- Elgoibarko erdigunean etxea konpartitzeko logela alokatzen dut. ☎ **678 803 535**

- Autoa edo furgoneta sartzeko marradun garajea alokatzen da Santa Ana kalean (berria). ☎ **646 966 198**
- Komuna duen lokal txiki bat behar da. ☎ **943 740 187**

MOTORRAK ETA GARAJEAK

- Garai bateko Geminis eraikuntzan garajea alokatzen da. ☎ **639 716 137**
- Garajeak saltzen dira Pedro Muguruza etorbideko 25. zenbakian. ☎ **625 708 042**
- Garaje ibxia salgai Plaza Txiki inguruan. ☎ **628 521 579**

BESTELAKOAK

- Harrerako altzaria salgai, ispiuarekin. ☎ **605 736 346**

OHARRA:

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak hiru astetan agertuko dira **BARRENEN** eta astero barren.iragarkilaburrak.com atarian. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta **15 euro** eta alokairua **10 euro**. Autoak **10 euro**. Eta bestelakoak **5 euro**. Eguazten eguerdia baino lehen. Tel.: 943 743 704

MODULOAK

Lana / Bestelakoak

Astebete : 5 euro

2 aste : 8 euro

3 aste : 10 euro

Etxebizitzak/ Garajeak/ Motorra

Astebete : 10 euro

2 aste : 17 euro

3 aste : 25 euro

Komunitate honen ataria berritzera goaz


saldu erosi alokatu bilatu oparitu ...



• Zorionak gure **txapeldunari**, ostegunean 12 urte egingo dituelako.



• Zorionak, **Naiara!** Gurasoen eta etxekoen partez, muxu handi bat.



• Zorionak, **txapeldun**, 6 urte egin dituzulako. Aita, ama, aitita, amama eta etxeko denon partez.



• Zorionak, etxeko berri-tsuenari, gaur 8 urte egin dituelako. Ondo pasa, **Zorione**. Etxekoan partez.



• Zorionak, **Haritz Azpiazu**, azaroaren 14an 8 urte egingo dituelako. Gurasoen eta lagun Nagore eta Julenen partez.



• Zorionak eta mila muxu, **Telmo**, datorren asteazkenean 6 urte beteko dituzulako.

OSPAKIZUNAK



Pasa den domekan Elgoibarko, Azkoitiko, Azpeitiko, Zestoako, Zumaiako eta Zarauzko 98 gaixo, ezindu eta laguntzailek egun ederra pasatu zuten urtero egiten duten bilkuran. Egun hori antolatzeko jende askoren laguntza izan zuten, eta argazkian azaltzen direnek eskerak eman nahi dizkiete egun euritsu hori argitu zuten guztiei.

Erretratu bakarrekog agurra: 2 euro. Argazki bikoitza: 3 euro. Hirukoitza: 5 euro. Handia: 6 euro. Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar duzu. **BARRE**neko bulegora 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.



Jasone
Zerbitzu Grafikoak

- Lan komertzialak.
- Kartelgintza era guztietako tamaina eta euskarrietan.
- Ezkontza gonbidapenak
- Gabon zorion-gutunak, egutegiak, etab.
- Inprimaketa digitala

Irekiera berria!

San Bartolome kalea, 15 behea • 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 53 17 45 • jasone@jasonesg.com
www.jasonesg.com

OKINDEGIA

15 domeka **EIZAGIRRE**

FARMAZIAK

24 ORDUZ

- 13 Zabaleta
- 14 Etxeberria (Errosario)
- 15 Etxeberria (Errosario)
- 16 Ibañez
- 17 Garitaonandia
- 18 Etxeberria (Santa Ana)
- 19 Fernandez
- 20 Yudego

Ibañez

Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 751 638

Fernandez

Herriko enparantza 4,
Garagarza (MENDARO)
Tel: 943 756 142

Zabaleta

Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 751 384

INFORMAZIO GEHIAGO:

Egin klik



www.elgoiBARREN.net
atarian



«Agora»

- 13, barixakua: 22:15
- 14, zapatua: 19:00/22:15
- 15, domeka: 19:00
- 16, astelehena: 21:30

14 zapatua

Mendi lasterketa

11:00 Karakako igoera
Morkaiko mendizale elkarteak antolatuta, Karakateko igoera izango da. Irteera, Plaza Handian.

15 domeka

Mendi irteera

10:00 Gaintxipia mendira irteera
Ikastolako guraso taldeak antolatuta, Gaintxipia mendira egingo dute irteera ikastetxeko umeez, gurasoez eta irakasleek. Irteera, Ikastolatik.

Txotxongiloak

16:30 'Cyrano'
Gorakada taldeak *Cyrano* txotxongilo ikuskizuna aurkeztuko du Herriko Antzokian.

18 eguztana

Hitzaldia

20:00 Asis Sarea
Asis Sareak antolatuta, zentzuaren bilaketa eta Asisko Frantziskotarren espiritualtasuna izango dute hizpide. Kultur Etxean.

20 barixakua

Kalejira

18:00 Trikitilarien kalejira
Inazio Bereziartua musika eskolako trikitilariak kalejira egingo dute.

Kontzertua

19:00 Santa Zezilia kontzertua
Musika Eskolako ikasleek Santa Zeziliaren omenez kontzertua eskainiko dute. Musika Eskolako auditorioan. Bertan, diplomak banatuko dituzte.

Erakusketa

19:00 Olio pinturak
Gemma Monreal margolariak bere amaren oroimenez egindako olio pinturen erakusteka inauguratuko du. Kultur Etxean egongo da ikusgai abenduaren 13ra arte.

GAZTELEKUKO EKINTZAK

BARIXAKUA 13
Masaje tailerra 17:00
ZAPATUA 14
Topagunea 17:00
DOMEKA 15
Castronegroko otsoak 17:00
MARTITZENA 17
Eskulanak 17:00
EGUAZTENA 18
Txoko pribatua 17:00
EGUENA 19
Sukalde txokoa 17:00

LUDETEKAKO EKINTZAK

BARIXAKUA 13
Globoflexia 17:00
ASTELEHENA 16
Musika 17:30
MARTITZENA 17
Psikomotrizitatea 16:30
EGUAZTENA 18
Non dago Ludo? 17:30
EGUENA 19
Talde jolasak 17:30



Antzerkia

20:00 eta 22:15 'Desnudos en Central Park'

Txalo Produzioak taldeak *Desnudos en Central Park* ikuskizuna taularatuko du Herriko Antzokian. Bi saio izango dira.

Kontzertua

22:30 Sotoko hotsak
Sinuosek antolatuta, Kultur Etxeko sotoan.



Idama

Urriko irabazlea:
**JUNCAL
ARRIOLA**

Azaroako saria:
**3 ORRAZKERA
3 HIDRATAZIOREKIN**

Antonio Arrillaga, 6-8 behea (sarrera Santa Ana kaletik)
Tel.: 943 74 40 26

Zerikasi

IKASTAROAK

Eramateko janaria prestatzeko ikastaroa

Norentzat: Interesatuentzat
Hizkuntza: Euskaraz eta gazteleraz
Hasiera data: 2009-11-17
Non: Eibarren
Izenemate bukaera: Kontsultatu

Sutan egindako esmalte ikastaroa

Norentzat: Interesatuentzat
Hizkuntza: Gazteleraz
Hasiera data: 2009-11-16
Non: Elgoibarren
Izenematea: Egur arte tailerran (Plaza Txikian)

Kaligrafia arabiarra

Norentzat: Interesatuentzat
Hizkuntza: Gazteleraz
Hasiera data: 2009-11-20
Non: Eibarren
Izena emateko: 943 708 437

Emakumeen kontrako indarkeriari buruzko jardunaldia

Norentzat: Interesatuentzat
Hizkuntza: Euskaraz
Noiz: 2009-11-28
Non: Eibarren
Izena emateko: 943 700 828

Sukaldaritza hasiberrientzat

Norentzat: Interesatuentzat
Hizkuntza: Euskaraz eta gazteleraz
Hasiera data: 2010-05-05
Non: Eibarren
Izena emateko: Kontsultatu

Informazio eta eskaintza zabalagoa:
www.zerikasi.com edo 943 74 82 71



«El niño pez» (Ongarri zine-kluba)

19, eguena: 21:30

Argentina-Paraguai-Espainia,
2008. Zuz.: Lucía Puenzo. Akt.:
Inés Efron, Mariela Vitale. 96 min.
Lala nerabea Buenos Airesko au-
zo aberats batean bizi da. Guayiz

maiteminduta dago, bere etxean
lan egiten duen paraguaytarraz.
Lalaren aitaren hilketaren ondo-
ren, Paraguai bidea hartuko du
Lalak.

herritik kanpo



maialen astigarraga

Sei hilabeterako joan da Maialen Astigarraga elgoibartarra Suediara. Abuztuan joan zen, eta Gabonetan etxera etorriko bada ere, urtarrila ere iparraldeko Europan pasatu beharko du. Hezkuntza Berezia ikasten ari da, eta Unibertsitateko Erasmus programaren bitartez joan da Suediara. Ikasturte erdia pasatuko du ongizate-gizartearen sorburuan.

“Suediarrak nahiko hotzak direla esatera ausartzen naiz”

Nolatan joan zara Suediara?

Erasmus bekarekin etorri naiz Suediara. Ikastera etorri naizela esan daiteke. Baina, horrez gain, hemengo gizartea, jende berria eta nire burua ezagutzera etorri naiz. Gauza asko egiteko asmoa daukat. Abuztuan etorri nintzen, eta ikasturte erdia egingo dut bertan.

Nolakoa da Suedia?

Suediako Östergötland eskualdeko Linköping hirian nago. Ikasleen hiria dela esan daiteke. Hiria izateko nahiko lasaia da, eta jende gehiena bizikletan mugitzen da. Industria dagoen arren, aire garbia arnasten da. Hiri barruko autobusak, adibidez, biodieselarekin funtzionatzen dute.

Nolakoak dira suediarrek?

Denetik dago, euskaldunen artean bezala. Baina, egia esanda, nahiko hotzak direla esatera ausartzen naiz. Laguntzeko prest daude beti, baina ziurtasun distantzia mantentzen dute; nik ezagutzen ditudanek bai behintzat. Hori bai, mozkortuta daudenean zeharo aldatzen dira.

Nolakoa da horko bizimodua?

Hemen 18 edo 19 urterekin iristen dira Unibertsitatera, eta une horretan gehienek gurasoen etxea lagatzen dute. Interesik gabeko kredituak eskatzen dituzte, eta ikasleei Gobernuak diru-laguntzak ematen dizkie. Ikasleen bizimodua ez da Euskal Herrian bezalakoa. Oro har, hemengo bizimodua diferentea da. Eguer-

dian ordubetez bakarrik ixten dituzte dendak, eta arratsaldeko 18:00ak aldean ixten dituzte. Ondoren lankideekin zerbait hartzera irteten dira, udan behintzat. Merkatal zentroak igandeetan zabalik egoten dira, eta jendez beteta. Bestalde, Espainiako futbol ligako partidak guztiak ikusteko aukera dago telebistan, eta pelikula eta telesailak bertsio originalean eskaintzen dituzte.

Nola moldatzen zara hizkuntzarekin?

Suediara ikastaroan lekurik gabe gelditu nintzen. 3tik 6 urtera bitarteko umeekin nago praktiketan, eta horiek dira nire irakasleak. Ez da erraza, eta seguruenik ez naiz suediera ikasteko gai izango hain denbora gutxian. Hala ere, ingelesa jakinda ez dago arazorik Suedian. Bestalde, gaztelera modan dago, eta jende askok ikasten du Unibertsitatean.

Zer gustatu zaizu gehien?

Hezkuntzari ematen zaion garrantzia, batez ere. Baita ere, jende txoririk ez egotea, kanpotarra edo kanpotarren seme-alaba izanda zure ama hizkuntzan alfabetatzeko aukerak eskaintzea, urtebeteko amatasun baja dagoela, immigranteak euren artean ondo konpontzen direla ikustea, birziklatzeko duten grina...

Bizitzen gelditzeko moduko lekua dela iruditzen zaizu?

Kantak dioen moduan, *Herrialde guztietan leku onak badira, baina bihotzak dio, zoaz Euskal Herrira.*





PERTSONA GUZTIAK DESBERDINAK GARA

Pertsona guztiak desberdinak gara. Relata guztiok dakigu, baina gure ongizatean ez dugu praktikan jartzen. **Pakene Ongizate Integralerako Zentruan** aldiz gogoan daukagu. Bi pertsonak ondoez bera, arrazoi desberdinengatik, izan dezakete, eta ondoezaren jatorriari erasotu nahi badiogu, eta, ez sintomak tapatzen jardun, jatorri hori ezagutzera eta zuzentzera jo behar dugu. **Ondoezaren jatorria ezagutzen badugu, arazoaren funtsari erasoko diogu.**

Gure lana ondoezaren zergati horiek ezagutzearan datza, edozein ondo-

ez sufritzera eramaten gaituen gorputzaren barneko logika ezagutzera.

Hori da gako. Zergatia ezagutzen badugu, ondoezak hazten diren barne ingurugiroa nola zuzendu jakingo dugu. Horrela, onera egin eta ondoeza desagerarazi ahal izango dugu. Baina, horretarako garrantzitsua da pertsonak bere osotasunean kontsideratzea, bere biologia, fisiologia eta fisiopatologi guztiaz, alegia.

Gaurko zientziak metodo eta aparatu modernoek hornitzen gaitu, gorputzeko bioenergetikan oinarritzen diren tekniken bidez. Gorputz funtzionamenduan eragi-

na duten ikuspegiak ingurugiroko toxikoen, elikagaien jasanezintasunak, geopatiak etabar kontuan hartzen laguntzen digute. Ikuspegi horiek eta beste hainbat kontuan hartuz zuzendu ditzazkegu ondoezak, barneko medioa egoki bilakatu eta modu honetan **erabateko ongizatea** berreskura dezagun.

Zure ondoezari modu pertsonalizatu eta terapia ez ohikoekin aurre egin nahi badiozu, jarri zaitez gurekin kontaktuan, **943 254 505** telefonoan.

PAKENE

Ongizate integraleko zentrua

MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

Kemen Belardenda. Naturopata, Iridiologoa eta Homeopata.

(Pisu kontrola, "Dieta erraza" mehetzeko tratamendua... Naturopatia, Bach loreak, P.N.L, makrobiotika, janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak). Quantum scio (estres kontrola) tarot terapeutikoa eta familia konstelazioa (banaka)
San Bartolome, 29 - Tel: 943 744 031
Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Sanatana Dharma Yoga Elkarte

Urasandi, 9
Tel: 943 748 593 (Idoia) - 685 722 131
Astearte eta ostegunetan:
10-11:30/13:00-14:00/15-16:30/
18-19:30/20-21:30
Mendaro: Astelehen eta asteazkenetan:
10-11:30/15-16:30
Astearte eta ostegunetan: 20:00-21:30

PAKENE Ongizate integraleko zentru berria

(Azterketa biologikoa eta osteopatikoa, Naturopatia, Homeopatia, Fitoterapia Txinatarra, Nutrizio ortomolekularra, Elikagaien jasanezintasunak, Bach-en loreak...). Tel: 943 254 505

FISIOTERAPIA

Ainhoa Fisioterapia

Eragozpen fisikorik egongo balitz, etxez etxeko zerbitzua eskainiko litzateke.
Tel.: 943 531 953 / 669 565 745
Jausoro, 6 behea. Goiz eta arratsalde.

OPTIKAK

Ikus optiko-optometrista

San Bartolome, 10
Tel: 943 743 734
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri

(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)
San Frantzisko, 21
Tel: 943 740 359
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

HORTZ KLINIKAK

Irale

Errosario Kalea, 7 behea (Elgoibar)
Tel: 943 743 679
Zeharkalea, 8 behea (Ermua)
Tel: 943 177 134
irale@irale.com - www.irale.com

Leku eder

Elena Herrero Lobo.
Aita Agirre enparantza, 5 behea.
Tel: 943 530 053
lekueder@infomed.es

Bettia Arriola

- Odontologia orokorra eta ortodontzia
- Haurren Hortzagin programa
- Panoramikak eta telerradiografiak
Trenbide kalea 21, behea
Tel: 943 531 869

PODOLOGOAK

Oinberri

Errosario kalea, 25
Tel: 943 741 795
Astelehenetik ostiralera:
9:00-13:30
15:00-19:30

Iñigo Arrillaga Yudego

- Hanken afekzioen terapia.
- Neurrira egindako plantilak.
- Hanka diabetikoaren zainketa.
- Ordenagailuaren bidezko hankaren azterketa.
San Frantzisko kalea, 20 behea
Tel: 943 741 645
Ordutegia: 9:30-13:30 / 15:30-19:30

MASAJISTAK

Victoria Iraegi

(Esku- terapiak: kiropraxia, dranatzaile linfatikoa, osteopatia, kirol masajea (bendaje funtzionala eta "taping neuromuskularra", lehiaketa bendajea.) San Frantzisko kalea, 40 (atzealdea) -Tel.: 943 740 770
Astelehenetik Ostiralera : 8:00 / 14:00

ORTOPEDIKAK

Itziar Sarasketa

San Frantzisko, 12
Tel: 943 74 35 62
Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

Cyrano

Gorakada Antzerkia

Azaroaren 15ean,
igandea

16:30ean


7 urtetik gorakoentzat
Herriko Antzokian



DESNUDOS EN CENTRAL PARK

Txalo produkzioak

Azaroaren 20an,
ostirala
20:00etan eta 22:15ean
Herriko Antzokian



IKUSKIZUN ESZENIKOAK

Sarrera Salmenta



CAJEROS SERVIKUTXA

943 00 12 00

www.kutxa.net



Euzko Legeburuak
Kultura saila



Euzko Legeburuak
Fon. Arloa



Euzko Legeburuak



SAREA